

Abesbatzak eta zuzendariak

Txintxarri abesbatza

Abesbatzei buruzko informazio osoa nahi izanez gero, Jose Gastesik idatzitako “Txintxarri abesbatza, 1960-2000. ALEGIA” liburua irakurtzea da onena. Hemen, horren laburpena besterik ez dago.

- 1881ean, Jose Manuel Lopetegi jaunak “Caveillé-Coll” organoa oparitu zuen elizarako, eta honela dio Gastesik: “*Beraz ez litzateke harritzekoa izango Alegiako parrokia-korua 1881ean sortua izatea edo agian lehenago.*”
- XX. mendeko 30. hamarkadan, Pio Montoiak eta Bernardino Azurzak gizonaekoez eta tipleez osatutako korua sortu zuten.
- 1936an desegin zen korua, baina 1949an, Lukas Guridi apaiza etorri zen eta parrokiako koruaz arduratu zen.
- 1957an, gaixorik jarri zen D. Lukas eta Azpeitiara joan zen. 1958an, Joxe Gastesik hartu zuen koruaren zuzendaritza.
- Garai horretan, elizan eta kanpoan kantatzeko abesbatza sortzea erabaki zen eta neska-mutil asko gehitu zitzaion koruari; horrela, Txintxarri Korala sortu zen.
- 1960rako osatua zegoen Txintxarri abesbatza eta urte horretan izan zen lehenengo emanaldia.
- 1974an, gazte talde batek Santa Ageda bezperan kantuan ateratzeko zuzendari-lana egiteko eskaera egin zion Joxe Gastesiri, eta, hortik, Txintxarri abesbatza berpizteko taldea sortu zen.
- Gizonaekoez bakarrik osatutako parrokiako koruak lekua utzi zion Txintxarri abesbatzari, eta, handik aurrera, gizon-emakumez osatutako abesbatza igotzen zen korura.
- 1990ean, Garbiñe Orbegozok hartu zuen abesbatzaren zuzendaritza, eta 2008an ere berak jarraitzen du abesbatza zuzentzen.
- Euskal Herriko abesbatza-musika zabaltzeko helburuarekin, kontzertu ugari eskaini ditu Euskal Herrian zehar. Euskal Herritik kanpora ere atera da eta kontzertuak eskaini ere bai:
 - o Alemania (bi bidaia) (*Nürnberg eta Winkelhaid* hirietara) (1985, 1989)
 - o Paris (Frantzia) (1987)
 - o Trans (Bretainia) (1994)
 - o Llanes (Asturias) (1998)
 - o Santiago de Compostela (Galizia) (2000)
 - o Montlieu (Haute-Saintonge-Frantzia) (2001)
 - o Begues (Bartzelona) (2003)
 - o Almazan (Soria) (2006)
- Alegiako San Juan Bataiatzailearen parrokian egiten diren meza nagusietan abesten du. Loiolako Basilikan 18 urtetan zehar Inazio Donearen bederatziurrenean ere abestu izan du. Donostiako Santa Maria Basilikan eta Artzai Onaren Katedralean mezak eskaini ditu.
- “The Mission” filmerako Enio Morriconek konposatutako abestiekin hiru kontzertu eman zituen 2000. urtean, Debako Aitziri abesbatzarekin eta Erreterria Musikaleko Orkestrarekin.
- Angel Unzu gitarristak moldatutako abestiekin kontzertua eskaini zuen 2004ko urrian. Abesti sorta hori ahots nahasietako abesbatzentzat eta musika-tresnentzat moldatuta dago: perkusioa, baxua, pianoa eta klarinetea dira horiek.
- Abesbatzak zenbait grabaketa egin ditu:
 - o Eguberrietako abestiz osatutako kasetea.

- o Tolosan Kilometroak 98 ospatzen zela eta, Inauterietako abestiz osatutako CD bat grabatzen parte hartu zuen, Tolosaldeako beste abesbatzekin batera.
- Abesbatzaren errepertorioa eliza-musikaz, Euskal Herrikan kanpoko musikaz eta, batik bat, Euskal Herriko musikagilerik ospetsuenek harmonizatutako melodiarik herrikoienek osaturik dago.
- Txintxarri abesbatzaren berri jakiteko blogaren helbidea:
<http://txintxarrikorue.blogsome.com/>

Abesbatzaren zuzendariak

Jose Gastesi Iturrioz

- Koru-zuzendaria eta kultur mugimenduen bultzatzailea.
- Mexikon jaio zen, 1926an.
- Zaragozan Peritu ikasketak egin eta CAFeko zuzendariordea izan zen.
- Goierri aldeko eskola eta kultur mugimendutan ibili zen, etengabe.
- CAFeko Lanbide Eskola lehenik eta Goierriko Lanbide Eskola gerora bultzatu zituen.
- Beasaingo ikastolako lehendakaria, Ikastolen Federazioko Zuzendaritza Taldeko kidea.
- D. Piok erakutsi zion solfeoa.
- Purita Jauregik erakutsi zion pianoa jotzen eta Eduardo eta Inaxio Mokoroarekin ere aritu zen.
- Lukas hil ondoren (1958an) hartu zuen orduko koruaren zuzendaritza; honela dio: “Koruko aulkira igotzeko balorea izan nuen, D. Lukasek barkatuko ahal zidan!”

Garbiñe Orbegoza Senperena

Alegian jaio zen, 1963/01/17an.

Alegian hasi zen solfeo eta piano ikasketak egiten, D. Vicente Aranbururen eskutik. Ondoren, eta M^a Paz Telleria eta Loreto F. Imaz irakasleekin aritu eta gero, Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioan jarraitu zituen bere ikasketak. Hor Piano Irakasle eta Goi Mailako Pedagogia tituluak lortu zituen. Bestalde, Donostiako Deustuko Unibertsitateko egoitzan (E.U.T.G.), Geografia eta Historia ikasketak burutu zituen.

Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak antolatzen dituen ikastaroetan hasi zen Koru zuzendaritzarako prestaketa egiten. Irakasle modura, honako zuzendari hauek izan zituen: Maite Oca, Elena Mena, Juan José Mena, José Manuel Tife, Enrique Azurza, Aitor Saez de Cortázar, Manuel Cendoya, Javier Busto eta José Antonio Sainz Alfaro.

Hainbat ikastarotan ere parte hartu du, zuzendari entzutetsuen zuzendaritzapean: Miguel Amantegi, E. Ericson, P. Cao, G. Graden, C. Högset, A. Grau, H. D. Loock, J. Poole, J. Duijck, E. Pohjola y A. Eby, beste batzuen artean. Horiei esker, garai eta era askotako koru errepertorioa lantzeko aukera izan du.

1986. urtez geroztik, *Hernani* Musika Eskola Publikoko irakaslea da eta bertan Lengoaia Musikala irakasten du eta abesbatza zuzendu ere bai.

Alegiako Txintxarri abesbatzako zuzendaritza 1990ean hartu zuen Joxe Gastesiren eskutik, eta horretan jarraitzen du.

Zortzikotea

- Garai hartan, 50-60 hamarkadan, puri-purian zeuden horrelako taldeak.

- Bide berriak jorratzeko asmoz hasi zen gizon talde bat. Taldea osatzen zutenak hauek ziren:

Fidel Zubillaga
Juan Bautista Elola
Bingen Artano
Lino Zumeta

Joxe Zubillaga
Bixente Zubeldia
Mariano Karrera
Inaxio Begiristain

- Urte batzuetan jarraitu zuen kantatzen talde horrek.

Txintxarri Txiki abesbatza

- Txintxarri abesbatzaren harrobi izateko sortu zen Txintxarri Txiki abesbatza, 1981 inguruan.
- 1981ean sortu zen abesbatza desagertu egin zen, baina 1991n berragertu zen.
- Urte hauetan zehar, Txintxarri Txiki abesbatza zuzendu dutenak bat baino gehiago izan dira:

Andoni Zubillaga
Nerea Elola
Miguel Zeberio
Marina Lertxundi
Jon Aranburu
Idoia Iraola